

# Informazioaren iraultza

**Joel L. Swerdlow**  
*National Geographic*, 188. bol., 4. zb. 1995ko urria  
Itzultzailea: Xabier Artola

Informazioaren teknologiak nora garamatzen jakitea ezinezkoa da, baina eguneroko bizitzan ikusten ditugu aldaketak informazio-iraultzaren eraginez: pertsonen arteko kontaktuaren gainbehera, sensibiltate estetikoaren aldaketa, teknologiak ezarriko menpekotasuna... Maila handiagoan ere ikusten da eragina, batzuetan positiboa, beste batzuetan negatiboa: kultura lokalen mehatxari den uniformetasuna, informazioaren ekonomia berria, alderdi politikoen leku-galtzea publizitatearen mesedetan, informazioa dutenen eta ez dutenen arteko zuloa zabaltzea... Gizakiak dituen balio handienak beregan baino aurkituko ez dituzenez, gizatasun aldagaitzari leial irauten asmatu beharra dugu.

It is impossible to know where the technology of information will take us, but in everyday life we notice changes originated by the technological revolution: the decline of personal relations, the change of the aesthetic sensibility, the dependence set by technology... The effect, sometimes positive and sometimes negative, is also noticeable on a higher level: the uniformity which constitutes a threat to local cultures, the new economy of information, the loss of position of political parties for the benefit of advertising, the expanding of the gap between those who have information and those who have not... Human being should be loyal to its unchangeable human condition, because it will find its greatest and more important values only within itself.

Ray Bradbury-ren *Fahrenheit 451*-en –1950eko hamarkadaren hasieran idatzitakoa, lehenbiziko telebista eta konputagailuak agertu orduko hain zuzen– jendeak pantaila elektronikoak ditu gustuko eta ez du irakurtzea maite. Pozik ageri dira suhiltzaileek liburuak erretzen dituztenean.

«Bazka ezazue jendea “datu erre-gaitzez”», dio suhiltzaileen buruzagiak. «Gainezta itzazue mukuru “gertakariz”, informazioz ase baina erabat “argiturik” geratu arte. Pentsatzen dihardutela irudituko baitzaie orduan, mugitu gabe ere mugimendu sentsazioa izango dute».

Bradburyren eleberriak ez dirudi dagoeneko etorkizun urruneko zerbait. Konputagailuen ahalmen handitzea dela eta, telebista eta konputagailuak soinu-, irudi- eta testu-korronte digi-taletan bat egiten ari dira, informazioz argiturik egotea posible eginez.

Informazioaren teknologia nora garamatzan jakitea ezinezkoa da. Ezusteko ondorioen legeak zuzentzen du iraultza teknologiko oro. Johannes Gutenbergek 1438an eskuizkribuzko Bibliak merkeago ateratzeko modu bat nahi zuen. Bere letra-molde mugiko-rrak ekarri zituen alfabetatze zabalago bat, aurrerapena ezagutza zientifi-koan, eta industri iraultzaren sorkun-tza.

Egungo informazio-iraultzaren eragina zenbaterainokoa izango den inork iragarri ezin badu ere, eguneroko bizitzan ikusten ahal ditugu aldaketak. Erreparatu edozein ikasgelatan. Gaur egungo irakasleak klasea bizkorragoa eta atsegina egin behar du, telebistarekin eta ordenadore-jokoekin hazitako haurrentzat. Rick Wormeli, Virginiako Fairfax County-n eskola

ertaineko maisu sariztatua, bere ikas-leen arreta jasotzeko, galtza motz horiak, gainjantzia, eta galtzerdi gorriak jantzi eta bere buruari “Adizlaguna” esaten diola azaltzen da batzuetan. Behin batean, egunari hasiera emateko, urpekariz jantzi eta blai eginda agertu zen. «Ahalik eta bizitasun handienarekin agertzen ahalegintzen naiz, itxura eta izana bateratuz», dio.

Maiz, informazio-teknologia berriak dakartzan aldaketak haintxe dira sotilak apenas ohartu ere egiten garen. Idatzizko hitza baino lehen, jendea bere oroitzapenez zen fida. Telefonoa izan aurretik, jende gehi-gok izaten zuen gutunak idatzi edota hartzearen atsegina, postontzian lagun edota senitarteko batek eskuz idatzi-tako kartazal bat aurkitzeak ematen duen pox hura. Telebista edo ordena-doreak baino lehen, jendeak komunita-te-sentimendu sendoagoa zuen, auzo eta familiarekiko lotura handiagoa.

Telebistak etxekotu egin gaitu, beste gizon eta emakumeengandik bereizi. Ipar amerikarretarik laurden batek baino ez ditu bere etxekonekoak ezagutzen. Gure herrietan intimitatea txikiagoa eta isolamendua handiagoa izango dira eskolako notak jaso, maitasun harremanak hasi eta esamesak Internet-en bitartez –konputagailuak elkarrekin komunikatzeko aukera ematen duen mundu mailako sistema–egin ditzagunean. Softwarearen Aroak eskainiko ditu joko gehiago, banku-koak etxetik egiteko aukera, erosketa elektronikoak, bideoa eskaripean, eta beste hainbat eta hainbat zerbitzu, elkarren arteko kontaktu fisikotik alden-duko gaituztenak.

Pertsonen arteko kontaktuaren gainbehera bistakoa da mundu osoan. Ekialde Ertainean, kafetegietako bizi-

tza –non jendeak, te kikara bat hartuta, berriketan iharduten baitzuen– amaitzen ari da. Jatetxeak Parisen kiebra jotzen ari dira; askok goizago ixten dute. Henri Miquel-ek, Le Dufrenoy-ko nagusiak, iluntzeko 8:00etan ixten du gauerdira arte egon gabe. Nora joan ohi dira bezeroak? «Telebista ikustera joaten zaizkizu agudo» dio.

Balio handiagoa al du aurrez aurreko hartu-emanak eskutizketa elektronikokoak baino? Auzo asko etxera etortzen dira oraindik familia batean krisialdi bat jazotakoan, baina beste askok posta elektronikoa –konputagailuen artean bidaltzen diren mezu idatziak– erabiltzen dute beren doluminak erakusteko. Zeinahi nahiago dugula ere, etorkizuna elektronikoa datzala lirudike. Telebistak irudia benetakoa- ren aldean hobesten irakasten digu. Internetek bizia denbora eta espazioaren muga fisiko zaharretatik haraindi bultzatzen du. Hor ibiltzen ahal da bat munduan zehar etxetik irten gabe. Lagun berriak ezagutu. Lurrari biraka dabiltzan astronautekin komunikatu. Laboratorioko esperimientuen emaitzak trukatu itsasoaz bestaldeko lankide batekin. Burtsako akzioen kotizazioak irakurri. Arropa erosi. Artikulu bat egiteko bibliografia bilatu. Bulegotik kanpo egonik, salerosketak egin alegiazko bulego bihurtutako ordenadore baten bitartez. Alegiazko komunitatea. Alegiazko bidaiak. Alegiazko amodioa. Errealitate berri bat.

William Gibson-ek, bere 1984ko *Neuromancer* eleberrian alegiazko biziaren ideiaren aitzindari izan genuenak, dio orain komunikazio elektronikokoak eskaintzen diola «espezieari zentzumenen halako hedapen bat, jendeari, geografikoki toki berean ego-

nik, izugarrizko esperientzia desberdina izateko aukera emanez». Ordea, Gibsonek gaztigitzen du alegiazkoak gure errealitate fisikoa handi dezakeela, inoiz ez ordezkatu. Txalotu egiten du ukitzea<sup>1</sup> –beste pertsonetikoko kontaktua, labur esanda– esaten zaion horren kontrako mugimendua.

Eskutitz elektronikokoak trukutzen dituen jendeak maiz sentitzen du ukitzearen premia, eta ahalegintzen dira berek benetako bizitza deitzen duten horretan elkartzeko. Karen Meisner, Connecticut-eko Wesleyan unibertsitatean ikasle, konputagailu-joko batean zebilen Interneten 1991ko hasiera aldean. Jolasean ziharduela Pär Winzel ezagutu zuen, Suediako Linköping-eko Teknologia Institutuan ikasle zena. Honek hura Velvet joko-izenaz baino ez zuen ezagutzen. Hasi ziren jokotik at mezu elektronikokoak elkarri bidaltzen, gogoetak konpartitzen “benetako bizitzako” harreman baten hasi-masietan litezkeenak baino zuzentasun eta indar handiagoarekin. Karenek bazekien zerbait berezia ari zela gertatzen; elkar ezagutzeaz hitz egin zuten. Beldurgarria zirudien. Eta orduan, Karenek mezu bat bidali zion: «Banoa zure bila». Bi urtez egon ziren ezkontuta.

Teknologiak bultza lezake orobat kontaktu fisikoa elkarrengandik gertu bizi direnen artean. Blacksburg-eko zahar jendeak, Virginian, bere ordenadoreak berriketan iharduteko ez ezik elkarretaratzeak antolatzeako ere erabiltzen ditu. «Hiriko erdialdetik paseeran ibiltzea bezalaxe da, lagunekin topo egin eta iragarki-taula kontsultatu», dio Dennis Gentry-k, armadako ofizial erretiratuak. «Bakar-bakarrik, pijama hutsean egiten ahal duzula, eta nahi duzunean gainera».

1. Itz. oh.: *skin*.

Ukitu nahia hirietako kaleetan, den-  
da-guneetan nabari daiteke –jendeak  
beste jendearekiko kontaktua nahi du,  
gauzak telebista edota telefono bitar-  
tez erostea baldin badauka ere–.  
Konputagailuak eta telekopiak<sup>2</sup> etxetik  
lan egiteko erraztasun handia ematen  
duten arren, hirietako merkatal barru-  
tiak gero eta handiago dira. Sekula  
baino jende gehiago biltzen da hiri  
handienetan, neurri handi batean  
ondasunak eta zerbitzuak hornitzen  
dituzten enpresek elkarrengandik  
hurbil egotea mesedegarri dutelako.  
Langileek ere beste pertsonekin ego-  
tetik letozkeen hartu-emanak bilatzen  
dituzte.

Ukitzearen premiak ez du baina  
ukatzen pantaila elektronikoaren  
liluratzeko-ahalmena. Ez da oraino ga-  
run-arakatze edota azterketa biokimi-  
korik egin elektronikaren estimula-  
ziorako bide dugun joera asezinaren  
nondik-norakoak ezagutu dituenik.  
Maiz, ordenadorea liluragarriagoa da  
telebista baino, eta honek ederki  
atxikirik gauzka dagoeneko. Gazte ipar  
amerikarrek, gaur egun, ikasgelan  
adina denbora ematen dute telebista-  
ren aurrean. Gauerdian 12 urtetik  
beherako 1.8 milioi haur egoten da  
oraindik telebistari begira. Helduek,  
berriz, astero 30 orduetik gora ikusten  
dute batz bestea.

Gurasoek murriz lezakete beren  
seme-alaben kontsumo elektronikoa.  
Baina gu ere atxikirik gaude, men-  
pean. Egun baterako lotura elektroni-  
koak etengo? Ez telefonorik, ez tele-  
bistarik, ez ordenadorerik? Egin  
aproba aste betez. Gutxi egiten ahal  
dute. Joera kontrakoa da. Bi urteko  
umeak teklatuari heldu eta bihamu-  
nean dioenean «Ama, aita, berriz,

“tagailua”», gurasoek gauza on bat  
jazotzen ari dela sentituko dute.

Gure “orratz elektronikoaren” men-  
dekotasuna handiagotu egingo da  
kablerik gabeko eskuzko hargailuak  
eskueran izan ditzagunean. Gailu  
horiek –telefonoa, ordenadorea, tele-  
kopia, eta telebista, denak batera–  
ehundaka bideo-, audio- eta testu-ka-  
nal eskainiko dituzte. Posta elektro-  
nikoa, Interneteko zerbitzuak eta  
telekopia bidezko komunikazioetarako  
aukera ematen duten eskuzko hargai-  
luak salgai daude dagoeneko, gehie-  
nontzat garestitxo baldin badira ere.  
Horrelako berrikuntza teknologikoak  
ez dira gizartean barneratzen edozei-  
nentzat probetxugarri diren arte.  
Estreinako telekopia Lyon-etik Parisa  
1865ean bidali zen, baina telekopiaren  
erabilera ez zen hedatuko teknologiak  
testuen kodetzea eta transmisioa  
merkeago egiteko aukera eman zuen  
arte, 120 urte beranduago, alegia.

Pantaila elektronikoarenganako  
konfidantza hori zabalagoa den zerbai-  
ten parte da, zibilizazio teknologikoa-  
ren hedapenarena, hain zuzen.  
George Steiner-ek, Cambridgeko  
Unibertsitatean kulturaren historia  
irakasten duenak, gaztigitzen du zibi-  
lizazio honek berdintasun arbuigarri  
bat sortzen duela, kultura lokalen  
mehatxari dena.

Uniformetasun horren iturburua,  
gehienbat, publizitate- eta denbora-  
pasarako industria dira. Estatu Batue-  
tako filme eta telebista-saioen salmen-  
ta munduan zehar bost bilioi dolarretik  
gorakoa da urteko. New Delhi-ko  
egunkari batek media horiei buruz  
«gure tradiziozko balioak jaten ari  
diren termitak» direla dio.

---

2. Itz. oh.: *skin*.

Baina gizakiak, berez, iharduki egiten dio komunikazio elektronikoak dakarren berdinkeria horri. Bizi garen lekuak –bere baliabideek eta historiak– tira egiten digu erruz, horretaz jabe ez baldin bagara ere. Berdinak garela esaten zaigularik, sustrai geografiko eta tribu-taldeetara joko dugu nongotasun zentzu bat aurkitzearen. Horrek azal lezake zergatik leialtasun etnikoak zuzperraldi bat izan duen gizabanakoa pantaila elektronikoki lotzen zaion garai honetan ere. Aipatu ihardukitze horrek galarazten ahal du *Fahrenheit 451* apokaliptikoa-ren etorrera, baina eleberriak iragaritzen duen legez, informazioaren teknologiak mehatxu egiten dio liburuari.

Hesiak handiak dira. Duela 4.000 urte papiroan idatzitako testuetatik hona, liburuak gorde du oroimena eta sakontasuna. Elektronikaren egungo erroka arte, bera izan da gizarte askok bere burua ezagutzeko izan duen tresna nagusia. Horregatik, agian, Microsoft Corporation-eko nagusi eta konputagailuen guru den Bill Gates-ek, informazioaren iraultzari buruzko bere ideiak argitaratzeko lehengo era –hots, papera eta liburu-azal lodiak– aukeratu du. Informazioaren lehertze honekin zerikusia duten zera guztien artean –hala nola, pribatutasuna, egile-eskubideak, libeloa, ordenadore bidezko lapurreta–, liburuaren borrorak izan dezake eraginik handiena.

Ikusi batera, liburuak sasoian dirau. EEBBetan salmentak inoizkorik handienak dira. Liburudenda erraldioen kateak –eta horietako askok 150.000 titulu inguruko eskaintza dute– gora doaz. Horrez gain, teknologiak idatzizko hitzari ematen dio konfidantza. Hamar bilioika hitz pasatzen dira egunero-egunero Internetetik. Informazio digitala inprimatu eta fotokopiatzeko

erraztasunak paperaren erabilera inoizko maila garaienetara ekarri du.

Baina telebistak eta ordenadoreak letragabetasuna bultzatzen du jende askorengan, gogogabe nolabaiteko mamia duen eta kontzentrazioa eskatzen duen ezer irakurtzen hasteko. Laburtasuna. Lauzprobost segundoko soinualdiak. Kanaletik kanalerako jauziak. Uneko atsegina. Irudi lasterrek. Etengabeko kitzikapena. Arretaldi laburragoak. Aspertzeta pekatuik larriena den mundu bat.

Teknologiaren bultzada dela medio, liburu tankera berriak hartzen ari da, eta betiko liburuak traste zahar baten itxura du. Horrek irrika berriak sortarazten ditu irakurlearengan. Multimedia elkarreragilezko liburuek josturirik gabe lotutako soinu-, irudi- eta hitz-segidak eskaintzen dituzte. Hizkuntza arrotz bat ikasi nahi duzula? Entzun, irakurri ahala, ahoskatutako hitzak. Algebra ikasi nahi duzula? Ikus nola mugitzen diren ekuazioak arbelean zehar. Testuko hitz bati buruz gehiago jakin nahi duzula? Egin klik gainean eta azalpenez beteko zaizu pantaila.

Entziklopedia elektronikoko gehiago saltzen da paperezkoa baino. Elektronikoak paperezkoaren aldean duen nagusitasun hori areagotu egingo litzateke baldin eta “sare-liburuak”, zeintzuk bibliotekekin kablegabeko lotura eskainiko bailukete, eskueran baleude. Hauta ezazu nahi duzun liburu eta irakurri, zauden lekuan zaudela. Ordea, sare-liburuak ez dira zabalduko harik eta pantailen teknologia hobetzen ez den arte. Pantailatik irakurtzea, gaur egun, ehuneko 20-30 mantsoago egiten da –eta askoz ere nekezago– paperezko liburuetatik baino, distira, ñirñira eta beste arazo batzuk direla eta.

Nahiz eta jendeak maite dituen paperean inprimaturiko egungo liburuak, teknologia berriari buru egin diezaiona atzean gera liteke. Hama-seigarren mendearen hasieran, Gutenbergen molde mugikorra sortu eta ia mende bat geroago, jende askok uste zuen oraindik balioa eta edertasuna eskuizkribuetan baino ez zetzala. Joranez landutako eskulan hauek badute inprimaturiko liburuek erdiets ez dezaketen erakargarritasun artistikoa. Federigo da Montefeltro-k, Italiako Errenazimenduko aitzindariak, zioen «bera lotsatu egingo zatekeela inprimatutako liburu baten jabe izateaz». Halako jokabideak, inprimaturik baino eskura ezin zitekeen ideia berri eta informazio zientifikotik urrundu egin zuen jendea.

Liburuetako aldaketa teknologiko horiek gure sormen eta sentsibilitate estetikoaren baitan gertatzen ari den beste aldakuntza handiago baten parte ditugu. Bideo-irudiak eta ordenadore-pantailak antzerkian eta operetan agertzen dira. Koreografia eta arkitektura ordenadore-programatan oinarritzen dira.

Eleberriak ere, Homeroren garaian poema epiko gisa sortuak, izango du bere bilakaera. Interneteko istorio batean irakurle bakoitzak dauka material berria eranstea. “Egile” eta “jatorrizko” nozioak, idatzitako liburuek ahozko folkloeari lekua hartu ziotenean sortuak, desagertzera doaz. Brown Unibertsitatean, Hipertestu-Fikziozko Lantegian ikasleek John Coltrane-ri entzun eta Matisse-k espazioa nola hautematen zuen ikasten dute. Soinua eta irudiak istorioetan nola integratu ikasten dihardute.

Robert Coover eleberrigilea da lantegi horretan irakasle, eta “Ierroaren

tiranotasuna” gaitzesten du. Berak “hipertestuzko eleberria” gorai patuko dizu, non istorioak ez duen alde aurretik ezarritako ez hasierarik, ez korapilorik, ez eta amaierarik ere. Irakurleak mosaiko moduko bat eratzen duten ekintzen artean aukeratu behar du bere bidea. Iaz, EEBBetan, horrelako 10.000ren bat eleberri baino saldu ez baziren ere, salmenta 1993tik hona ehuneko 40 igo da. Coover-en estreinako ikasleatarikoa den Bob Arellano-k berriki burutu du *@Itamont*, aurki CD-ROMean argitaratuko den eleberri elektronikoa. Eleberriak bi hasiera eskaintzen ditu. “Xalotasuna” dioen lekuan klik egiten duenak bikote gazte baten lehen musua izango du irakurgai; “Eskarmentua” dioena aukatzen duenak, berriz, hilketa baten gainean irakurriko du. Bi istorioak gero hor ehunduko dira, narrazio-ingurune berean zehar. Ez batzuk ez besteak ez dute emandako korapilo edo amairik. Irakurlea, Arellano-k berak dioenez, «hor ibiliko da istorioaren espazioan barrena bere kasa».

Gazte jendeak mosaiko ekintza horiek gustuko izango ditu agian, baina era lineal batean pentsatzeko eskolatutakoak hipertestu-eleberriak aspergari eta nahasgarri bila ditzake. Ez dago burmuinak berez egiten duena egin dezakeen hipertestuzko eleberririk. Feodor Dostoyevskyren *Hobena eta Zigorra*-n, Raskolnikov-ek emakume gazte eder bat ikusten du kalean. Harengana doa. Haren gona urratu egiten da. Hurbilduz doakionean, emakumearen aurpegia ikusten du, lotsagorrituta eta losentxa. Irakurlearen erreakzioa, pasarte intenporal honen aurrean, askotarikoa izan daiteke, bere-bereak diren egitura, modu, xehetasun eta sentipenezko konbinazioak sortuz. Eta hori esfortzu berezirik gabe egiten dugu guk.

Informazioaren teknologia, nahi adinako jaramona egiten zaiela ere, giza burmuinak duen gaitasunaren atzetik dabilta oso. Ikertzaileek jotzen dute kuatrilioi bat estekadura daudela burmuin normal bateko nerbio-zelulen artean, EEBBetan joan den hamarkadan egindako telefono-dei guztiak baino gehiago, alegia.

Baina giza ahalmena gero eta eraginkortasun eskasagoa erakusten ari da informazio-teknologia, gure bizitza ekonomiko-politikoaren eratzeko, hartzen ari den bidea kontrolatzeko. Baliabide, langile, eta kapitalaren kokaleku geografikoak gero eta esanahi txikiagoa dauka, hango eta hemengo herriak elkarrekin lan egiteko informazio-teknologiaren baliatzen diren heinean. Automobil askok eta askok bospasei herritan egindako osagaiak dauzkate; arropa-dendetan lau kontinentetan jositako jantzi antzekoak saltzen dituzte. Zer dela eta? Zuzendaritzak kalitatea kontrolatu eta produktioa koordina dezake lekua edota distantzia kontuan hartzeke. Dirua erraz mugitzen da oso. Egunero, mundu zabaleko azoka elektronikotatik trukaturako izakin, diru eta balioak hiru trilioi dolarretik gorakoak dira, EEBBetako urteko aurrekontuaren bi halako.

Orain bi belaunaldi, politika-aztertzaileek harreman ekonomiko orokorak neurtzeko herrien artean mugitzen ziren trenak kontatzen zituzten. Egun, telekomunikazio-sareetako trafikoari erreparatzen diote. Eta aurkitu dutena ustegabekoa izan da. Washington D.C.-n komunikazioen arloko abokatua den Gregory Staple-ren azterketen arabera, Kanadatik 1993an dei gehiago egin ziren Hong Kong-era Frantziara baino. Indiako trafikoaren heren bat herrialde arabiarretara zuzendu zen.

Nazioarteko ekonomia hori ez zuen sortu informazio-transmisioan lortutako lastertasunak. Kostuen gutxitzeak sortu zuen. Mende bat baino gehiago bada nazioartean berehalako komunikazioa posible dela. Mila zortziehun eta hirurogeita hamabian, Phileas Fogg-ek munduari itzulitako 80 egunetan egiteko bere ahaleginean ziharduela, atzetik zuen detektibearen telegrama batek minutu batzuk behar zituen lurbira osoko bidaiara egiteko. Orainsu arte, ordea, elite ekonomiko eta politikoa baino ez zen baliatzen nazioarteko kableriaz. Kable transatlantiko batek, 1965ean, 130 elkarrizketa garraiatzen ahal zituen aldi berean. Gaur egungo zuntz optikozko kable batek, berriz, 500.000 baino gehiago garraia ditzake, eta askoz ere kostu txikiagoarekin.

Gero eta langile gehiagok izan behar du gai informazioa xurgatu, erabili eta trukatzeko informazio-inguru honetan. Munduko enpresa-korporazio handienetan bere ideiek eragin handia duten Peter Drucker-en ustean, 2.000. urtea baino lehen EEBBetako langile-riaren gutxienez heren baten zeregin nagusia halako lana izango omen da.

Informazioaren ekonomia honek teknologia berriei arin egoki dakizkiekeen arrisku txikiko enpresa-saioken alde jokatzeko du. Eta horrexegatik, Iparramerikako hirietan agerian dagoen zerbait aipatzearen, Los Angeles-eko enpresa pribatuetako bi heren edo ez ziren existitzen 1970ean. Los Angeles-eko Mike Forti enpresagizonak 30 milioi dolarretik gorako tresneria-salmentak ditu esku artean, Errusiako Gazprom gas-enpresari egindakoak. Bere tratu guztiak etxetik egiten ditu, telekopia, telefonoa eta posta elektronikoz baliatuz. Oso bakan egoten da bere lankideekin.



Baina Forti-ren enpresari berari ere era zaharreko adiskidetasun batek eman zion hasiera. Munduko ekonomian nola parte hartu aztertzen ziharduela, lagun batek galdetu zion ea haren koinatuaren Moskuko enpresarekin negoziarik egin nahi zuen. Forti-ren hurrengo saioa ere beste lagun batzuen bitartez gauzatu zen, eta Indian tresneria saltzea zuen helburu. Ukitzearen botereak sortu zuen elektronikoki bideratuko zen enpresa gauzatzeko aukera.

Nazioarteko ekonomia honetan konpetitibo mantenduko bada, herri batek informazioari eta ideiei zabalik egon behar du. Informazioa kontrolatzeko gobernuek egindako saioek –Rumaniak idazmakinen erabilera murrizteko saioak ere egin zituen– porrot egin ohi dute ezinbestez, eta ez bakarrik presio ekonomikoagatik ezpada baita teknologia aginteari etengabe oldartzen zaiolako ere. Satelite bidez igorritako *Charlie's Angels* eta beste telesaiok debekatu asko iristen da Iranera. Mexikoko Chiapas-eko oihanearan dabiltzan matxinatuek Interneten barrena bidaltzen dituzte beren posta-mezuak. Indonesiako gobernuak Pramodya Ananta Toer-en lanak, zeinen eleberririk mundu osoan goresten baitituzte, galaraziko dizkizu, baina indonesiarrek aise aurkituko dituzte beren konputagailuekin eta inprimaraziko.

Informazioaren botereari dagokion ikasgai polita dator Txina eta Burmatik, nongo soldaduek milaka manifestari hil baitzituzten 1980ko hamarkadaren bukaera aldera. Soldaduek esana betetzen zuten. Baina gobernuek soldadu-talde aukeratuak hartzen bide zituzten eta ongi asmatutako gezurrak esaten zizkieten, manifestarien demokraziaren aldeko helburuak

ezagut ez zituzten. Halako hilketa batetik 1988ko irailean ihes egindako ikasle batek hitz egin zuen geroago armadako soldadu xehe batekin. «Ez nekien ezertxo ere», zioen soldaduak. «Nik uste nuen zuek komunistak eta atzerritarrak zinetela, herriaz nagusitzeko ahaleginean zenbiltzatenak».

Gobernu batzuk, garapen-bidean dagoen mundu aldean batik bat, irekitasun ekonomikoa politika autoritario batekin nahasten saiatzen dira. Baliteke horrela aldi baterako arrakastarik izatea. Luzera ordea –Taiwan, Txile eta besteak erakusten duen legez– libre dabilen informazioa da demokraziaren elikagai.

Aldi berean, demokrazia bera aldarazten ari dira informazio kopuru izugarri horiek. Pertsonalitateak eta publizitateak hartu dute alderdi politikoen lekua. Arazoak arin aurkeztu behar dira, irudizko laguntzekin. Garrantzi handiko arazoek, hala nola langabezia eta krimenaren arteko erlazioak, gutxitan hartzen dute jendearen arreta. Berriak baino zerbait gehiago nahi dugu; berri berriak nahi ditugu, berriak azkena entzun genituenetik berriak direnak alegia. Gobernu-koek, unibertsitateko adituek, eta bestelako buruek ez dute inondik ere informazioaren gaineko monopoliorik. Iritzi publikoak zeresan handiagoa dauka politika publikoan eta diplomazian.

Informazioaren eskuragarritasunak izan dezake berehalako eraginik. Badaukazu hots egitea, esate baterako, Right-to-Know sarera 202-234-8570 zenbakia modemean markatuz, doako kontu bat ireki zure izenarekin, eta ziztu bizian jakin bizi zaren aldean egotzi dituzten 300 gai kimiko toxikoak zeintzuk diren. Informazio hori ezku-



tuan zegoen araubidezko burokrazia dela medio, baina orain auziak, auzoen ekina, eta gobernuaren erantzun beharra bultzatzen ditu. Kathy Grandfield-ek, Missouriiko Sedalia-n bizi den sasi-abokatuak, inguruko planta kimiko batek bere senitartekoen gripe antzeko gaixotasuna eta baratzako txorien hilketa sortu ote zituen susmoa zeukan. Right-to-Know horren bitartez jakin zuen gai kimikoen egozteak izan zitezkeela zioa. Bera eta bere auzoak –antzeko sintomak aspal-ditik zituztenak– elkartu egin ziren eta plantaz libratzea lortu.

Tresna hauek menperatzen dituzte- nek, izango ote dute eragin makurrik politikagintza publikoan? Eta informazioa jende gehiagorengana lasterrago eta merkeago iristeko aukera ematen duten banda-zabalera berri izugarri horietarako sarbidea kontrolatzen dutenek? Internet delakoa 1960ko hamarkadan gerra nuklearretik begiratzeko Defentsa Departamenduan diseinatutako komunikazio-sistema batetik jaio zen. Horrelako arazoibideak zaharkiturik geratu direlarik, merkatuaren indarrek ordeztu dute gobernuaren finantzazioa. Interneten geroa izan daiteke publizitatearen mendekoa, telebista edo irratiaarena bezalaxe, baina inork ez daki horrek zer eragin izan dezakeen zerbitzuen atzigarritasun eta edukietan.

Kostu handiak gu banatzen ari dira, batetik informaziodunak eta bestetik informaziorik gabeak, printzipio demokratikoak mehatxatuz honela. Herriak ere era berdinean daude banaturik, informaziodunak eta informaziorik ez dutenak. Garapen-bidean dauden herrietan, jende gehienak ez dauka ez telefonorik ez ordenadorerik. Edukiko balituzte ere, beren makinak hortxe egongo liriateke, alfer-alferrik, non eta

gobernuak ez liriatekeen gai bilioika dolar inbertitzeko telekomunikabideen azpiegituran –batez ere kableria, sate-liteak eta emisoreak–. Eta horrek ere ez luke dagoen koska izugarria berdinduko –garabidean dauden herrietako jendearen herenak ez daki eta irakurtzen–.

Gutako batzuk pasako gara mundu berrira; beste batzuk, aldiz, atzean geratuko dira. Mundutar berriek are aurrerago joko dute teknologiak aurrera egiten duen heinean, eta litekeena da ordenadoreek giza arrazonamendua eta sentimen-pertzepzioa antzertzea. Inortxok ere ez daki nolako sarea izango den Interneten ondorengoa, edota zer-nolako konputagailu-boterea egingo duen posible. Hor ibiliko gara, agian, zabor artetik aukeratu eta mezuak deszifratuko dituzten nabigazio digitaleko iratxoez fidatzen. Joera bat garbia da, ordea: informazioarengan kultu aireko fedea, gero eta handiagoa, eta Internetari erantsiz gero azkarragoak izango garelako sinesmena. Egitatez beterik. Informazioz argiturik. Mugimendu sentsazioa mugitzeke. *Fahrenheit 451*-eko harako hura, hain zuzen ere.

Teknologiak gero eta informazio gehiago agintzen digu gero eta ahalegin txikiagoa eskatuz. Horrelako agintzak entzuten ditugunean, teknologian dugun fedea geuregan dugunarekin orekatu behar genuke. Jakinduria eta zuhurtzia, maiz, egunean egotetik edo datuak pilatzetik baino hausnartze isiletik etorri ohi dira. Ditugun balio handienak –moraltasuna eta errukia bezalako gauzak– geuregan baino ez ditugu aurkituko. Etorkizunari atxikitzen gatazkiola ere, geure gizatasun aldagaitzari leial irauten asmatuko al dugu.